



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



Hizkuntza Eskola Ofizialak  
Escuelas Oficiales de Idiomas

015054aa@hezkuntza.net  
www.eoidurango.net

## MATRIKULA OFIZIALA

### 2010-2011 ikasturtea

*Euskal Herriko Hizkuntza Eskola Ofizialetan ikasleak onartzeko eta matrikulatzeko Aginduaren arabera, [www.eoidurango.net](http://www.eoidurango.net) orrian kontsulta daiteke, matrikula egiteko baldintzak hauexek dira:*

- HIZKUNTZAK ETA MAILAK:** Euskara, Frantsesa, Ingelesa: A1, A2, B1.1, B1.2, B2 eta C1.eta Alemana: A1, A2, B1.1, B1.2 eta B2. Hizkuntza Eskola batean baino ezin da matrikula egin hizkuntza bera ikasteko.
- PROZEDURA:** **Matrikula Internet bidez** egin behar da web-orri hauetan: [www.eoidurango.net](http://www.eoidurango.net) eta [www.eoieuskadi.net](http://www.eoieuskadi.net). Eskola-ordutegiak matrikula eskabidea egitean begiratu ahal izango dira aplikazio informatikoan.
- ADINA:** Euskararako eta DBHn atzerriko lehenengo hizkuntza modura ikasitako hizkuntzarako, ezinbestekoa da 16 urte beteta izatea 2010eko abenduaren 31 baino lehen. Beste hizkuntzetarako, berriz, 14 urte beteta izatea.
- EPEA: Uztailaren 1etik 20ra eskabidea egin nahi duten guztientzat.**  
**Irailan azterketa egin behar duten ikasle ofizialek ere** epe horretan egin beharko dute matrikula, ikasturtea errepikatu beharko balute bezala, deialdiak agortuta dituztenek izan ezik.
  - Irailan gainditzen dutenek Eskolara etorri beharko dute hurrengo mailarako matrikula egiteko, **IRAILAREN 15a BAINO LENEN**.
  - Gainditzen ez dutenek, deialdiak agortuta edukiz gero (araudiaren arabera maila bakoitzari dagozkion 2 ikasturteetakoak), graziazko deialdirako eskabidea egin beharko dute Administrazioan (behe solairua) irailaren **7tik 24ra bitartean**. Hori eginez gero, itxaron zerrendan sartuko dira.Uztailaren 20a igaro ondoren matrikulatu nahi dutenek, Atezaindegian **Epez kanpoko eskaera** hartu eta Administrazioan aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta; eskaera horren kopia ere gorde beharko dute, ordena-zenbaki bat izango baitu. Horrela, itxaron zerrendan sartuko dira.
- AGIRIAK:** Baremaziorako minusbaliotasunen bat alegatzen dutenek baino ez dute agiririk ekarri beharko. Horiek uztailaren **21a baino lehen** aurkeztu beharko dute egiaztagiria Hizkuntza Eskola Ofizialeko Administrazioan (behe solairua).
- 6.- BAREMAZIOA:**
  - Baremazio-prozesutik kanpo geratuko dira aurreko ikasturtean ofizialak izanda ikasmaila errepikatuko dutenak, baita ikasmaila gaindituta hizkuntza berean hurrengo ikasmailara pasatuko direnak ere, baldin eta matrikula egiteko lehentasuna galdu ez badute hutsegite kopuruagatik edo matrikulari uko egiteagatik arrazoirik gabe.
  - Baremazio-prozesuan sartuko dira uztailaren 1etik 20ra matrikula eskabidea egiten duten beste guztiak. Baremazio-irizpideak hauexek dira: adina, minusbaliotasun egoera, familia ugaria duena eta lan egoera. Argibide gehiago nahi izanez gero, Onartze Aginduaren III. eranskina begiratu.
- LETREN ZOZKETA:** Hauek dira eskabideak ordenatzeko abizenen lehenengo letrak:  

A	L	E	M	A	N	A	Z	E	U	S	K	E	R	A	P	F	R	A	N	S	E	S	A	S	I	N	G	E	L	E	S	A	B
---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
- ONARTUEN ETA EZ-ONARTUEN ZERRENDAK:** Ezinbestekoa da Eskolan bertan begiratzea edo hurrengo web-orrian: [www.eoidurango.net](http://www.eoidurango.net).
  - **Behin-behineko zerrenda:** **uztailak 27**. Behin-behineko zerrendan agertzeak ez du esan nahi behin betiko onartuta egotea. Behin betiko zerrenda begiratu beharko da.
  - Erreklamazio-epea: **uztailaren 27a eta 28a**.
  - **Behin betiko zerrenda:** **irailak 3**.

9. **ORDAINKETA:** Matrikularen aplikazioan agertzen diren argibideei jarraitu, Interneten. Ez da bueltatuko oker egindako diru-sarrerarik. **Epea: irailaren 7tik 20ra.** Zehaztutako epean ordainketa txarto egiteagatik kanpoan gelditu direnen izenak argitaratuko dira. Ezinbestekoa da Eskolan bertan begiratzea edo web-orri honetan: [www.eoidurango.net](http://www.eoidurango.net).
- Ordaindu ez dutenen **behin-behineko zerrenda: irailak 23.**
  - Erreklamatzeko epea: **irailaren 24tik 28ra.**
  - Ordaindu ez dutenen **behin betiko zerrenda: urriak 1.**
10. **ITXARON ZERRENDA:** Honako hauek egongo dira zerrenda horretan:
- Lehenengo eta behin, irailaren 3an argitaratutako zerrendan **ez-onartuen zerrendan** agertzen direnak, hor agertzen diren orden berean: lehenengo, baremazio-prozesutik kanpo daudenak; gero, baremazio-prozesuaren barruan daudenak.
  - Bigarren, **graziazko deialdia eskatu duten ikasleak**, hau da, araudiaren arabera ikasmilla bakoitzari dagozkion 2 ikasturteetako deialdiak agortuta dauzkatenak.
  - Hirugarren, **eskabidea epez kanpo egin dutenak.**
11. **ITXARON ZERRENDARAKO HUTSIK GERATU DIREN PLAZAK:** **Urriaren 5ean** argitaratuko dira itxaron zerrendarako hutsik geratu diren plazak, baita horiek banatzeko egun zehatzak ere. Ordainketa egiteko epea: **urriaren 15etik 19ra.**
12. **MAILAKATZEKO PROBAK:** Auto-ebaluaziorako probak dira, eta aurreko ikasmilla gainditu gabe ikasmilla jakin batean matrikulatu nahi duten guztiek egin behar dituzte. [www.eoidurango.net](http://www.eoidurango.net)-etik jaitsi ahal dira.
13. **OHARRAK:** Espainiar nazionalitatea dutenek ezin izango dute izena eman hizkuntza honetan: GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT. Beste nazionalitate batzuetakoek ere ezin izango dute izena eman euren AMA HIZKUNTZA dena ikasteko.
14. **IKASTURTEAREN HASIERA: IRAILAREN 27a, astelehena.**

Durango, 2010eko uztailaren 1a